

Urperatutako memoria.

Gure iragana, gure memoria, gure historiaren bila murgiltzen gara. Beste garai batzuetako uneak, denborak geldiarazi eta itsasoak harrapatuak, arkeologiari ukigabeko iragan batetara bidaiatzeko aukera berdingabea eskaintzen diotenak. Denbora gelditu zen unera bueltatzeko aukera, itsasontzia hondoratu zen une hartara.

Arkeologia aztarnak modu zientifikoan induskatu ondoren, garbiketa, tratamendu, kontserbatze eta ikerketa prozesua hasten da. Gaur egun, hau da ohiko prozedura, baina duela hamarkada gutxi, ikerketa hauek aurrera eraman ahal izateko ekipo eta instalakuntza zientifiko faltak, ia ezinezko lan bihurtzen zuen. Espainian, urpeko arkeologiaren oinarriak 70eko hamarkadan ezarri ziren, eta Julio Mas-ek gidatu zituen krosko ezberdinetan egindako lehenengo indusketa sistematikoak, berari iraganeko momentu ukigabeetara bidaiatzeko aukera eman ziotenak.

... bizitza zati bat. Hau Pompeian besterik ez da gertatzen. Pompeian filma eszena batean gelditu da, eta ezin da mugitu, eta pertsonaia hori inguratzen duen guztia bertan da. Hori Pompeia bezala Vesubioaren errautsek betirako zigilatu duten hiri batean, edo ukitu gabe dagoen aztarnategi batean bakarrik egin daiteke.

Aztarnen lokalizazioarekin hasten da dena, sarri zantzu gutxi batzuetan oinarrituz. Orduan, materialen dispersio eremuaren kokapenaren bidez, aztarnategiaren hedadura zehazteko azterketari ekiten zaio. Ikerketa prozesu luze eta konplexu baten hasiera da, eta emaitzak argitaratu eta aurkitutako aztarnen kontserbatze eta erakusketa publikoarekin amaituko da. Horrela, hondoratutako aztarnak iraganeko informazio iturri bihurtuko dira. Zeramika edo egur zati soilak baino askoz gehiago dira. Konparaezineko balio historikoa dute, eta horregatik gorde behar ditugu ebasteetatik.

Espainian, Zaragozako Unibertsitateko Beltran irakaslea da aitzindari bakarra. Garai hartan, Cartagenako Museoko zuzendaria zen eta Marinako Jauregi koronelarekin elkarlanean azterketa bat burutu zuten urpekari klasikoekin Cartagenako uretan. Bertatik material ugari atera zuten. Orduan, Marinaren laguntzaz, Frantzia eta Italian egiten ari zirenen antzeko zerbait egin ahal izan genuen; hondoak ikertu, bertako piezak marraztu eta atera. Hau 70. urtean izan zen.

Lehenengo ikastun haien lanari eta Cartagenako Urpeko Arkeologia Museo Nazionala bezalako instituzioei esker, Espainian lehenengo mailako aktibitate zientifikoa garatu ahal izan da. Honela desagertua zela uste genuen iraganaren aztarnak errekuperatu eta kontserbatu dira. Orain, jada errekuperatuak, komunitate zientifikoaren esku daude.

Guzti hark bultzatu ninduen urpeko arkeologian jardutera. Honen ostean, 70. urtean eta Martin Almagro-ren enkarguz, lehenengo urpeko arkeologia ikerketa zentroa sortu nuen Patronatuarekin; eta gero zentro hau Urpeko Arkeologia Museo Nazionala bihurtu zen.

Espainiako itsas hondoetan, oraindik ukitu gabe jarraitzen dute ehunaka krosko eta gure iraganaren beste aztarna batzuek. Asko lokalizatuak eta katalogatuak daude, indusketa hasi ahal izateko baliabideak lortzeko zain. Baina iragana ezagutzeko borondatea behar da, Julio Mas eta bere kolaboratzaile taldeak izan zutena bezala, gure urpeko ondare kultural zoragarriaren ezagutzan aitzindari.